

Gizarte zerbitzuen aurrekontua %7,4 igoko dute Villabonan

6,8 milioi euroko aurrekontua onartu du Amasa-Villabonako Udalak; kultura, hezkuntza eta ingurumen sailetan ere igoera izan da; kiroldegiko teilatua konponduko dute aurtan // 5

Altzon eta Tolosan ere izango da U30 Aldaketaldia

Hitzaldiak eta bizikleta martxan egingo dituzte Tolosan, eta zuhaitz landaketa Altzon; Ezker Iraultzaileak ekologismoari eta iraultzaren inguruko hitzaldia antolatu du // 4

Zazpigarren postuan da Tolosa CF, 16 puntu batuta

Futboleko Hirugarren Mailako taldeari talde indartsuen aurka jokatzeari egokitu zaio azken hiru partidetan, eta hiruak galdu egin ditu // 7

13 domina lortu ditu Alpino Uzturrek, Euskadiko Txapelketan

Bost urrezko lortu dituzte, zilarrezko sei, eta beste bi brontzezkoak; Alaia Juaristi 18 urtez azpiko sailkapenean lehen postuan dago // 7



Xabier Cañas kultur teknikaria, Olatz Peon Tolosako alkatea eta Aritz Azurmendi Galtzaundiko kidea, ekimena aurkezten. J.A.

Tolosaldeko ezagutza guztia eskura, Wikipedian

Otsailean abiatuko dute Tolosaldepedia, eskualdeko ezagutza oro Wikipedian jartzea helburu duen ekimena; proiektua garatzeko Talde Eragilea sortu dute eta editatzeko tailerrak egingo dituzte // 2

**AURREMATRIKULA
IREKIA
URTARRILAREN
18TIK 29RA**



ikastolak

hezkuntza
eraldatzen





Xabier Cañas kultura teknikaria, Olatz Peon Tolosako alkatea eta Aritz Azurmendi Galtzaundi Euskara Taldeko kidea, atzoko aurkezpenean. JOSU ARTUTXA

Jakintza elkarrekin eraikitzen hasteko unea

Otsailean abiatuko da Tolosaldepedia, eskualdeko ezagutza guztia, herritar guztien eskura egon dadin, Wikipedian jartzea helburu duen ekimena

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Tolosako Udalak, COVID-19aren pandemiak eragindako itxialdiaren ondorioz jarri zuen martxan Tolosapedia egitasmoa. Tolosari buruzko ezagutza sakondu eta herritarrek elkarren arteko harremanak sustatu zituzten sortu zen, baina hilabeteak pasa ahala, hainbat aldaketa izan ditu proiektuak. Ondorioz, eskualde izaera hartu du orain.

Gauzak horrela, izaera areagotzeaz gain, izena ere aldatu diote: Tolosaldepedia izango da egitasmo honen izen berria. Otsailean jarriko da martxan, eta urtea amaitu bitarte iraungo du. «Proiektu herritarra eta irekia da, elkarlanean egina, herriedia formatuan garatuko delako eta herritarren ekarpenekin osatu eta zabalduko delako», dio Olatz Peon Tolosako alkateak.

Orain beraz, eskualdeko ezagutza oro Wikipedian jartzea du helburu, informazio hori herritar nahiz kanpotar guztiek eskuragarri izan dezaten. «Proiektua

garatzeko hainbat ekintzailez osatutako Talde Eragilea sortu da, eta dinamizatzaile bat izango du», azaldu du Peonek.

Batez ere, Wikipediako euskarazko orrialdean gauzatuko da, baina baita gaztelaniazko eta beste hizkuntzetako Wikipedian ere, herritarren eta aukeren arabera. Gainera, egindako lan guztiekin, sortutako artikuluekin eta egileen izenekin liburu bat argitaratuko da urte amaieran, eta doan banatuko da, parte hartzen dutenen artean.

EDITATZEN IKASTEKO

Hilabeteko lehen ostegunetan (otsailaren 4an, martxoaren 4an, apirilaren 15ean, maiatzaren 6an eta ekainaren 3an), Wikipedian editatzen ikasteko eta Tolosaldepedia proiektuan idazteko lantegiak egingo dira, Tolosako kultur etxean. Saio irekiak izango dira, 17:00etatik 20:00etara. «Norberak bere ordenagailua eraman beharko du, eta eskaerak egin ahala, eskualdeko beste herrietan egin ahal izango dira», azal-

du du Xabier Cañas kultura teknikariak. Lantegi horietan izena emateko, www.tolosa.eus webgunean dagoen galdetegia bete behar da.

Tailer horiez gain, zenbait gaietarako topaketak egingo dira, beti ere, COVID-19aren inguruko egoerak baimentzen duen moduan. Martxoaren 8an izango da lehena, 17:00etatik 20:00etara, Aranburu Jauregian, *Itzalpeko Emakumeak* erakusketa probestuz. «Informazio-iturriak topatuko ditugu bertan, gure eskualdean Errepublikara iratzen, gerran eta frankismoan nabarmendu ziren emakumeen inguruan», gaineratu du Cañasek. Topaketa horietan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango lantegietan izena ematea.

%16, EMAKUMEAK

Parekidetasunaren gaiarekin jarraituz, Tolosaldepedia proiektuan, arreta berezia jarri nahi da emakumeengan, gaur egun Wikipedian dagoen genero arrakala gainditzeko. «Horrela, Jabetze

Eskolaren barruan, azaroaren 4az geroztik lanean ari da emakume talde bat, Wikipedian editatzen ikasten eta Tolosaldeko emakumeen biografiak sortzen eta osatzen», dio Cañasek.

Hilabeteko lehen ostegunetan, proiektuan idazteko lantegiak egingo dira Tolosako kultur etxean

Jabetze Eskolaren barruan, Tolosaldeko emakumeen biografiak sortzen eta osatzen ari da talde bat

Aipatutako genero arrakala horren erakusgarri, zenbait datu ematen ditu kultur teknikariak. «Wikipediako editoreen %18 baino ez dira emakumeak eta horrek gaien inguruko joera zehaztea dakar. Adibidez, Wikipedian dauden biografien %16 baino ez dira emakumeen ingurukoak». Arrakala hori gainditzeko, Tolosaldeko emakumeen buruzko

NONDIK HASI TOLOSALDEPEDIAN EDITATZEN?

Wikipediaren webguneko Tolosaldepedia orrialdean aurki daitezke artikulua osatzeko iturriak. Horretarako, TOLOSALDEKO ATARIA-k eskualdearen inguruan argitaratutako artikulua eta testuak eskura jarri eta alfabetikoki sailkatu dira. Gainera, Tolosako Liburutegiak eta Artxiboak bibliografia bat osatu dute tokiko gaien inguruan.

Hamaika modu eta gai daude Wikipedian editatzeko. «Erraza da, baina beharrezkoa da jendeak duen beldur hori galtzea», dio Xabier Cañasek. Adibide batzuk aipatzekotan, 1813ko Tolosako guduari buruzko informazioa ingelesez soilik azaltzen da eta ez dago Tolosako San Joan festetako alardeari edo Bordon Dantzari buruzko artikulurik. Bestela, eskualdeko eraikin historiko, ibai edota pertsonai ugariaren argazkiak falta dira.

atal berezia sortu du udalak, «atentzioa hor jartzeko eta lantegietara etortzen direnak, haiek hala nahi izanez gero, horretan lanean jartzeko».

HAURRENTZAT, ERRAZAGO

Hezkuntza komunitateak ere parte hartuko du egitasmoan, ikastetxeekin elkarlanean Txikipedia proiektua garatuko baita. Wikipediaren barruan dago integritate, eta 8 eta 13 urte bitarteko haurrentzako entziklopedia da. «Wikipediaren aldean, bisualagoa da, eta haurrei egokitutako hizkuntza erabiltzen du, esaldi motzagoekin eta azalpen errazagoekin», azaldu du Aritz Azurmendi Galtzaundi Euskara Elkartearen kideak.

Tolosaldepedia egitasmoa adin-tarte guztietara zabaltzeko asmoz, 2020ko urriaren 22an lehen aurkezpen bat egin zitzaizen ikastetxeetako ordezkariari, bertako gaztetxoek Txikipedia proiektuan parte hartu zezaten. «Txikipedian editatzea ikastetxeko lanetako bat izango da ikasleentzat, eta ikusgarri egongo da guztiontzat. Hezkuntzaren ikuspegitik, ikaste-esanguratsua deituko da garatu nahi da horrela, izan ere, ikasleek egiten duten lana benetakoa da eta isla izango luke», dio Azurmendik.

Dagoeneko zortzi ikastaro eman dituzte Orixe ikastetxean. Ibarrako Uzturpe ikastolak, berriaz, bere 50. urteurrena dela eta, edizio topaketa berezia egingo du gaur; gainera, jada osatu dute ikastetxeari buruzko artikulua.

GUTUNAK

Ostiralean plazak betetzera

COVID-19aren eraginez urte hasiera honetan Bilboko kaleak gainezka bete beharrean Euskal Herri osokoak bete ditugu, tartean Tolosaldeko 16 herri-tan, euskal jendarteak preso, iheslari eta deportatuen aferak ezinbestean behar duen soluzioaren alde bidea eginez.

Koronabirusaz gain, eguraldi hotz eta elurtsuarekin egin behar izan genituen ekimen desberdinak, guzti hauetan argazki anitzak, koloretsuak eta argitsuak ikusiz.

Ezin ukatu dezakegu, aurtengo mobilizazioak testuinguru politiko berri batean eman direla, Espainiako Estatuko presondegiatan azken hilabeteetan mugimendu ugari ematen ari direlarik.

Ukaezina da, azken hilabeteetan ematen ari diren hainbat urratsek bereziki presoen senideei lasaitasun eta arintze bat eragiten diela, mugatua, baina aintzat hartzekoa.

Mugimendu hauen barruan eman dira eskualdeko hainbat euskal presoen hurbilpen edo jakinarazpenak, tartean gure herriko Aitor Agirrebarrena Beldarrain Cadizko Puerto III espetxetik (etxetik 1.020 km) Asturiasko Villabonakora (etxetik 385 km) lekualdatu dutela iragarritz.

Baina ez da aski, gure herrian benetako elkarbizitza, benetako normalizazioa eskuratu nahi bada bizi dugun gatazka politikoak sorturiko ondorioek konponbide integral bat eskatzen dute eta horrek ezinbestean espetxean edota erbestean direnen etxeratzea esan nahi du.

Datozen hilabeteetan aipatu egoerak izan dezakeen garapean berebiziko garrantzia izango du preso, iheslari eta deportatuen auzia konponbidera eramateko ahalegin partekatu zabalak kalean, instituzioetan eta eremu orotan aurrera eramatea.

Bide honetan egiteko deia luzatzen dizuegu, urtarrileko az-

ken ostiral honetan ere plazak betez.

Urrats bat gehiago preso, iheslari eta deportatu politikorik gabeko Euskal Herri baten alde.

Sorterrira ekarri behar ditugu. Denak etxera.

Haimar Altuna Ijurko

Sortu-ko kidea, Lizartza

Oilagorren harira

Azkenaldian, nahi baino gehiagotan elkar trukatu behar izan ditut iritzi ezberdinak nire ingurukoekin. Egoera latz honek, ezinbestean, bakoitzak gordeta duen izate hori atera du argitara, askok distiraz, baina beste askori itzal luze eta zabalek irentsi diete.

Elkarrizketa horietako batean, tartean, zurito baso erdi-huts gutxi batzuen artean, adiskide batek egoeraz nazkatuta zegoela adierazi zuen.

Edonor ere, zilegi da pandemiaren parada honetan arima akituta eta arrakalez josia izatea eta ziurrenik beste momentu batean aipatu edo beste norbaitek esan izan balu, akaso, haizeak eramaten utziko nukeen esaldi hura, baina erantzun xeble bat etorri zitzaidan burura eta etorri bezala ahotik irteten zitzaidan.

Ehiztariak hain «maitatuak» dituzten oilagorrek desagertze arriskuan izango balira eta beraien ehiza debekatuta egongo balitz, ezkutuan eta legez kontra hegazti dotore hauek ehizatzen aritzea eta aritze horretan debekuez kexatzearen gisara jokatzeko ari zela aitortu nion.

Eta aitortzen dut ateraldi hura ez zela adibiderik egokiena izan, baina bat-batekotasuna askotan egokitik herren izaten omen da; bistakoa den bezala, nire adiskideak egunerokotasuneko jardunean izaten dituen jarrerek ere makulua behar dutela.

Hala ere, atrebentzi guztiz diot, norberaren motxila jarre-ra berekoiz hornitzen dituzten hauek ere, nahiko oilar eta nahiko gor planta ere izaten dutela maiz, baina, bizi-senaz oilagorrek hegan hasteko behar duten bat-batekotasunik ez dutela izaten euren ekintzetan.

Iñigo Ormazabal

Alegia

Etxebizitza berriak egiteko proiektua aurkeztuko dute

Amezketako Udalak Estankoko eraikin zaharra bota eta bertan etxebizitzak egiteko proiektuaren berri emango die herritarrei; aurkezpenera joateko, aurrez izena eman beharko da

Erredakzioa Amezketako

Amezketako Udalak garatua du Estankoko eraikin zaharra bota eta etxe berriak egiteko proiektua. Aurreratu dutenez, proiektu horrek herrirako «interesgarria» izan daitekeen beste aukera bat ere zabaldu die: Fernando Amezketarraren plazan lur azpiko garajeak egitea eta plaza berri-tzea.

Guztia herritarrei aurkeztu nahi die udalak, eta aurkezpen bilera ostegunean, otsailak 4, izango da. Etxebizitzen eta garajeen proiektuaren aurkezpenera kultur etxeko areto nagusian egingo dute, 18:00etan.

Aurkezpenean etxebizitzen eta garajeen planoak eta prezio-



Estankoko eraikin zaharra bota eta etxebizitzak egingo dituzte bertan. ATARIA

ak erakutsiko dituzte. Ondoren, udalak epe bat irekiko du garajeak erosteko interesa dutenek izena eman dezaten. «Dagoen eskararen arabera erabakiko da garajeak egingo diren edo ez», esan dute udaletik.

Bizi den osasun egoera dela eta, aurkezpenera pertsona kopuru mugatua sartu ahal izango da, eta osteguneko aurkezpenera joateko beharrezkoa izango da izena ematea 943 65 31 89 telefono zenbakira deituta.

Mendi Tour Tolosa film laburren lehiaketa, martxan

Erredakzioa Tolos

Mendi Tour Tolosa jaialdia 11. ediziora iritsiko da aurtengo, eta dagoeneko zabalik dago jaialdiaren barruan urtero antolatzen den film laburren lehiaketara lanak aurkezteko epea. Film laburrak otsailaren 18a bitarte aur-

keztu daitezke eta mendiarekin edota abenturekin zerikusia duten esperientziei buruzkoak izan behar dute. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ditzake. Lanek ezin dute 5 minututik gorako iraupena izan, edozein hizkuntzatan egin daitezke, formatu digitalean, eta originalak,

aurretik argitaratu gabeak eta sari gabeak izan behar dute. Bi sari banatuko dira: 600 euro irabazle nagusiarentzat, eta 400 euro Tolosaldeko lan onenarentzat.

Udate-n aurkeztu daitezke lanak edo *wetransfer* bidez bidalita *kultura@tolosa.eus* helbidera.

Trafiko aldaketak Larramendiko lanak direla eta

TOLOSA // Gaur hasiko dituzte Larramendiko biribilgunea egonkortzeko asfaltatze lanak, eta, ondorioz, 09:00etatik aurrera trafikoa desbideratuko dute egun batez, errepidea erabat itxita egongo baita bi norabideetan. Garraio publikoak aldaketak izango ditu eta honako autobus geltokien zerbitzua lekualdatuko dute: Larramendi 6koa, Telepizzakoa, bialeko hasierakoa eta Santa Lutzia auzoan autobidearen azpian dagoena.

Bilera irekia bihar, Plaza Etxeberri eraikinaz hitz egiteko

ZIZURKIL // Zizurkilgo Plaza Etxeberri eraikinari eman beharreko erabileraren inguruko bilerak bideratzen ari da Herribizigune elkarteak. Bihar ostirala Plaza Etxeberri eraikineko beheko solairuan egingo dute hurrengo bilera, 18:00etan hasita. Orain arte herritarren eskutik jasotako ekarpenei forma emango die Herribizigune elkarteak, eta hori guztia txosten batean bilduko du ondoren.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en

Ingurumen larrialdiaren aurka U30 Aldaketaldia antolatu dute

Larreko Mahaiak antolatu du ekimena eta Tolosalderako ere prestatu dituzte ekitaldiak; hitzaldiak eta bizikleta martxa Tolosan eta zuhaitz landaketa Altzon

Irati Saizar Artola

Herri, auzo, ikastetxe eta lan zen-troetan «ingurumen larrialdia salatzen» ekintzak antolatu ditu Larreko Mahaiak. U30 Aldaketaldia deitu diote ekimenari, urtarri-laren 30aren bueltan egingo baitira ekintza horiek. Tolosaldean egiteko hainbat proposamen prestatu dituzte: batetik, larunbat honetan, bizikleta martxa egingo dute Tolosan, 11:00etan, Triangulotik hasita. Otsailaren lean, berriz, Gorka Egiak, *Ekologista naiz baina* liburuaren egileak, hitzaldia eskainiko du 18:30ean, Tolosako kultur etxean. Eta leku berean, baina otsailaren 5ean, Xabier Zubialde *Hacia la soberanía energética: crisis y soluciones desde Euskal Herria* liburuaren egileak hitzaldia eskainiko du 18:30ean. Azkenik, otsailaren 6an, zuhaitz landaketa egingo dute Altzon, Haritzalde taldeak dinamizatuta.

Egitaraua borobiltzeko, manifestazioa egingo dute larunbatean Donostian. 17:00etan abiatuko da Gladys Enea parketik eta Bulebarrera arteko ibilbidea osatuko dute. Egun horretan, Zaldibarko hondamendiaren bezperetan, gogoan izango dute urtebete atzera Zaldibarren gertatu zena, «argi geratu baita Euskal Herrian, in-



Planeta «hemen» hasten dela gogorarazi nahi dute U30 Aldaketaldia ekimenarekin. ATARIA

gurumen alorrean, gauzak ez direla ondo egin eta ez direla ondo egiten ari».

Era berean, larunbateko manifestaziora inguruko herrietatik joan ahal izateko Larreko Mahaiak esan du idatzi bat bidaliko diola Ertzaintzaren zuzendaritzari. Idatzi horretan gogoratuko dio «konfinamenduak ez duela bertan behera uzten herritarrek manifestazio batera joateko duten

eskubidea, baita manifestazioa beraien herritik kanpo egiten denean ere». Manifestazio eskubidea «oinarritzakoa» dela esan dute, eta neurri horretan, Ertzaintzari eskatuko diote isunik ez jartzeko Donostiara manifestaziora doazen herritarrei.

«HEMEN» BISTARATZEKO

Larreko Mahaiak osatzen duten talde ekologista, sindikatu eta

eragileek esan dute «ezinbestekoa» dela krisi globala «hemen» bistaratzea, «ikuspegi lokala» izatea. «Planetari gertatzen ari zaiona gurean hasten dela argi adierazi nahi dugu», esan dute. Agintari politikoek, «pandemiaren aitzakian», eredu ekonomiko eta sozial «jasanezinean» sakondu eta klima eta ingurumen larrialdi egoe- ra areagotzen jarraitzen dutela gaineratu dute.

rra autobidea berriro irekitzea zen eta erantzukizunak ez iristea kargu politikoenganaino».

Zaldibarrekin batera, Zubieta-ko erraustegia ere gogoratu dute, «nahiz eta Europak gisa horretako proiektuak bertan behera utzi dituen». Ezker Iraultzaileak esan du Zaldibarko zabortegiko hondakinak lekuz aldatzea eta erretzea pentsatzen ari dela EAJren gobernuak, eta hori «arduragabekeria» dela, «ingurumenaren aurkako eraso larria, sailkatu gabeko hondakinetan substantzia kaltegarriak barreiatuko baitira».

Neurri berean, AHT eraikitze-ko lanak ingurumenaren dituen eraginak ere azpimarratu dituzte, bai eta monolaborantzaren alde egin duten apustua ere, «eukalip- toak landatzeko diru laguntzak emanez».

Ekologismoari eta iraultzari buruzko hitzaldia, ostiralean

I.S.A.

Ezker Iraultzaileak ostiral honetarako hitzaldi bat antolatu du ekologismoaren eta iraultzaren inguruan. Victor Taibo izango da hizlaria, *El cambio climático y la lucha por el socialismo* liburuaren idazlea, hain zuzen. Hitzaldia *online* izango da, 19:00etatik aurrera, eta entzun ahal izateko meet.jit.si/ekologismoaetairaultza helbidean sartu beharko da, edo bestela, 685 708 281 zenbakia- rekin harremanetan jarri.

Otsailaren 6an urtebete egingo

du Zaldibarko zabortegian gertatu zenak, eta horren harira eta U30 Aldaketaldia ekimenarekin bat eginez antolatu dute saioa.

Urtebete pasa izanagatik, Ezker Iraultzaileak esan du ez dela aldatarik egon EAJren gobernuak Euskal Herriarentzat prestatutik daukan ibilbide orrian, eta mundu mailako osasun larrialdia erabiltzen ari dela «foku mediatikoa gure ingurumena kudeatzeko eta suntsitzeko politika-urruntzeko».

Zaldibarren gertatutakoaren ondoren, gertakari «larriak» onar-

tu behar izan direla azaldu dute: «Besteak beste, 10 mila tona amianto biltegitatik ziren, meta- noa neurtzeko gailuek ez zuten behar bezala funtzionatzen, za- bor-isurketa batzuk ez ziren be- har bezala egiten, eta zabortegiak baimendutakoa baino eremu handiagoa okupatzen zuen». Ho- rren aurrean Eusko Jaurlaritzak «isilik» geratu izana ere salatu dute: «Ezkatatu egin zuen beste- ak beste inguruko herrietan dio- xina eta furanoa barreiatzen ari zela istripuaren ondorioz piztu- ta-ko sutearekin. Lehenetsun baka-

GUTUNA

Klima aldaketa feminismoan

Larrialdi ekologikoarekin kezkatuak dauden eragile sozial zein sindikalek osaturiko Larreko Mahaiak elkarguneak, U30 Aldaketaldia ekimenaren baitan, manifestazioa deitu du larunbaterako. 17:00etan abiatuko da Donostiako Gladys Eneatik eta Lurgatz Talde Feministak bat egiten du deialdiarekin.

Honen harira, klima aldaketak mugimendu feministan zeresana baduela azpimarratu nahi dugu. Horretarako, klima aldaketa gai feminista dela dioten Clare Hymer eta Maddy Hodgsonren bost arrazoiak labur aipatuko ditugu:

1. Klima aldaketak neurritz kanpo eragiten die munduko pertsona pobreei, eta horietatik %70 emakumeak dira.

2. Klima hondamendia gertatzen denean, genero indarkeria areagotzen da.

3. Baliabideak ez erazteko borrokan ari diren emakume indigenak hiltzen eta desagertzen ari dira.

4. Emisioak murrizteko erantzukizuna norbanakoei dagokie, etxeko aktore direnei, eta, beraz, bereziki emakumei.

5. Klima-aldaketak eragindako migrazioa generoa duen prozesua da.

Hau kontuan izanik, klima aldaketaren gaian genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da. Azken finean, *Gizonak, Maskulinitasunak eta Klima Aldaketa* txostenaren (Men Engage Alliance, 2017) adierazten den bezala, «patriarkatua kaltegarria da gure klimarentzat», gizonek natura menderatu nahi izan duten ikuspegitik, besteengan boterea izan nahi duten bezala. Ahalegin berriak egin behar dira norabide egokian aurrera egiteko, gizonak klima- hondamendien aurrean ahulak diren gizaki gisa sartuz.

Alicia Puleo filosofo ekofeministaren ahotan, «emakumeak naturalizatu egin dira, eta natura, feminizatu, baliabide infinituen iturri gisa eratua: kapitalismoa, bere hedapen infinituaren behar- rean, menderatze patriarkalera- ko borondatearen formetako bat da». Ekofeminismoa bi hitzekin laburbiltzen du: «autozaintza eta justizia globala».

Azken hauek dira Lurgatz Talde Feministak emakumeengan* egunerokotasunean presente izan nahi dituen hitzak. Ez lurra, ezta gure gorputzak ere, ez dira konkistarako lurraldeak!

Lurgatz Talde Feminista Aiztondo

Villabonako Udalak 6,8 milioi euroko aurrekontua onartu du

Gizarte zerbitzuetako aurrekontua %7,4 igoko dute eta kultura, hezkuntza eta ingurumen sailetan ere gehikuntzak egingo dira; kiroldegiko teilatua konponduko dute aurtan

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak onartu du 2021. urterako aurrekontua eta iazkoaren oso antzekoa izango da kopuruari dagokionez. Diru sarrerak urrituta, udalak mailegu bat eskatuko du iazko kopurua berdintzeko: 6.859.326 eurokoa izango da aurrekontua. Beatriz Unzué alkatearen hitzetan, horrek ez dio udalari zama handiegirik eragingo, ekarriko dituen mesedeekin alderatuta: «COVID-19ak eragindako krisia 2021ean areagotu egingo dela aurreikusten dugu eta horregatik uste dugu ez dela hau murrizketak egiteko garaia. Ez da geldirik egoteko momentua, ahalegin handiagoa egiteko baizik, pertsonak erdigunean jarri eta amasar eta billabonatar guztien oinarrizko eskubide guztiak bermatu nahi ditugu, inor bazterrean utzi gabe».

Osasun krisiaren kalteak pairatu dituzten herritarrak eta ondorioak jasan dituzten sektore ekonomikoak lehenatasuna emango die udalak 2021eko aurrekontuan. Iazkoarekin alderatuta, gizarte zerbitzuen alorreko aurrekontua %7,4 igoko da eta %32 igoko dituzte gizarte larrialdietarako laguntzak. Orotara, 100.000 euro bideratuko dira laguntza horietara. Alkateak nabarmendu du 2019tik %38,4 handitu dela sail honen aurrekontua: «Herritarrekin dugun konpromiso irmoa erakusten du horrek».

Kolpatutako sektoreekiko konpromisoa agertu nahi dute Amasa-Villabonako udal ordezkariak eta horregatik, besteak beste, %10 igo dute kultura sailaren aurrekontua. Ingurumen eta hezkuntza sailetak diru partidak handitu egingo dituzte, eta mantendu, berriz, hirigintza, euskara eta kirol alorretan. Zerbitzu orokorreari dagokionez, %10eko igoera aurreikusten dute 2021erako, eta atal honi dagokionez, administrazioa digitalizatzeko proiektuarekin lotu du igoera alkateak.

Udaltzaingoa aurrekon-



Olaederra kiroldegiko teilatua konpontzea izango da udalaren aurtengo inbertsio nagusienetakoa bat. J.M.

tuan, bertako langileek horrela proposatuta, doikuntza bat izango da aurtan eta udal gobernuaren gastuak ere gutxitu egingo dira. «Soldadak kontuan hartu gabe, 2019tik hona udal gobernuaren gastua ia 100.000 eurotan murriztu da», esan du Unzué.

2021ean egingo diren hiru inbertsio nagusi nabarmendu ditu alkateak. Kiroldegiko teilatua birmoldatzen 165.000 euro eta eskola publikoko eraikinetan egokitzen 70.000 euro gastatuko dituzte. 50.000 euro ere aurreikusi dituzte energia planerako. Ander Goikoetxea Ingurumen arloko zinegotziak iragarri duenez, martxorako izango dute eskutan energia plana eta orduan ikusiko dute zein inbertsio mota egin daitekeen udal eraikinetan, kontsumo gutxitu eta energia aurrezteko.

OPOSIZIOAREN BOZKA

Udal gobernuak PSE-EEko udal taldeak egindako proposamen batzuk txertatu ditu aurrekontuan, baina ez dira nahikoa izan taldeko zinegotzi Maria Luisa Arijak aurrekontuari baietza

emateko. Harrera elkarteari, Udalbiltzari eta Gaindegari emandako diru laguntzekin ez dator bat zinegotzi sozialista eta horrela argudiatu du kontrako bozka. Xabat Laborde EH Bilduko zinegotziak «harriduraz» hartu du Arijaren ezezkoa: «Ogasun batzordean aurrekontuari baietza eman, ondoren bertan txertatzeko ekarpenak egin eta ekarpen horietako batzuk aintzatzat hartu ondoren, ezezko botoa eman duzu. Ez dugu ulertzen».

EAJk, bere aldetik, «erantzukizunez» aurrekontu proposamenaren bozketan abstenitzea erabaki du. Patxi Agirre jeltzaleak negoziatzeko «borondate falta» egotzi dio udal gobernuari eta iaz aurrekontutako 27 zuzenketetatik aurtengo aurrekontuan ia bat bera ere jaso ez izana leporatu dio koalizioari. Jeltzaleek emandako abstentzioaren «koherentzia» nabarmendu du Labordek: «Epe nahikoa eman zaio oposizioari ekarpenak egiteko eta ez zarete gai izan proposamen bat aurkezteko. Horren erantzukizuna soilik zuena da»,

Azkeneko osoko bilkuran,

2021ean izango duen plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari hasierako onarpena eman dio Amasa-Villabonako Udalak. EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren kontrakoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin onartu da proposamena.

Alderdi jeltzalearen taldea udaleko komunikazio teknikariaren lanaldia handitzearen kontra agertu da. Agirrek aipatutakoaren arabera, alkatetzatik bideratutako txostenean, teknikariaren lanaldia %75etik %100era igotzeko arrazoia ez dago behar bezala argudiatuta. Gainera, erabakia Ogasun batzordean hartu izana gaitzetsi dute zinegotzi jeltzaleek, «langileen negoziazio mahaitik pasagabe».

EH Bilduko Labordek, gai honetan aurretik ere bi taldeen artean izandako ereduaren arteko tala azpimarratu du: «EAJkoek nahiago duzue kanpo enpresa bat kontratatatu lan horiek egiteko eta guk berriz, udal zerbitzuak indartzearen alde egiten dugu. Oso harro esan dezakegu, komunikazioan aurrerapauso izuga-

ZENBAKITAN

Sarrerak

	Euroak
Zuzeneko zergak	1.471.000
Zeharkako zergak	50.000
Tasak eta bestelako zergak	545.950
Transferentzia arruntak	4.173.176
Ondare sarrerak	24.200
Finantza aktiboak	20.000
Finantza pasiboak	575.000

Sarreraren zenbatekoa: 6.859.326

Gastuak

	Euroak
Pertsonal gastuak	2.425.039
Ondasun eta zerbitzuak	2.653.001
Finantza gastuak	8.200
Transferentzia arruntak	919.126
Inbertsio errealak	659.458
Finantza aktiboak	20.000
Finantza pasiboak	174.500

Gastuen zenbatekoa: 6.859.326

rria eman duela udalak hilabete hauetan. Lanari behar bezala heltzeko, lanaldia handitu beharra dagoela uste dugu».

OSTALARIEI BABESA

Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera plataformak aurkeztutako mozioa ere onartu du Amasa-Villabonako Udalak. Honenbestez, Eudeli, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari honakoa eskatzen dio: «Martxoaren 14az geroztik, atzera eraginarekin, Gipuzkoako ostalaritzako autonomiei hileroko gutxieneko soldata bat aitor diezaietela eta hori bideratzeko beharrezkoak diren izapideak burutu ditzatela».

EH Bilduren aldeko, EAJren kontrako eta PSE-EEren abstentzioarekin onartu da mozioa. EAJren udal taldeak «elkartasuna» eskaini die ostalariei eta haien zatirako diru laguntza zuzenak eskatu ditu. «Errealistak izanda ostalarientzat oinarrizko errenta bat egikaritzea oso lan zaila izango litzateke. Ostalariek orain behar dute soluzioa».

Mozorrota eta etxetik ospatuko dituzte inauteriak

Datozen asteburuetan ziren ospatzekoak inauteriak Lizartzan eta Berastegin; beste modu batera biziko dituzte aurtengoak

Irati Saizar Artola
Berastegi / Lizartza

Aurten inauteriak ez dira ospatuko, ez Tolosan, eta ezta Lizartzan eta Berastegin ere. Azken bi herri horietan, gainera, Tolosakoak iritsi aurretik ospatu ohi dituzte. Lizartzan, asteburu honetan ziren hastekoak txekorra hiltzeko egunarekin, eta hurrengo asteburuan jarraipena eman nahi zioten inauteriari. Berastegin, berriz, otsailaren 5ean eta 6an antolatu nahi zituzten. Bietan, bertan behera utzi behar izan dituzte.

Ohiko moduan ez ospatuagatik, aurkitu dute modua festa egiteko. Lizartzan, esaterako, Otsolar dantza taldeak mozorroak jantzi eta argazki edota bideoak bidaltzeko deia egin die herritarrei. Bideoen kasuan, gehienez 40 segundokoa izateko eskatu dute. Urtarrilaren 30a baino lehen *otsolardantzataldea@gmail.com* hel-

bidera bidali beharko da eta parte hartzaile guztien artean sari bat zozketatuko dute. Jasotako argazki eta bideo guztiekin beste bideo bat egingo dutela azaldu du Malentxo Arrospide lizartzarrak, «elkar ikusteko behintzat».

Sinbolikoki bazen ere, hasiera batean, dantzak egiteko eta kultur ekitaldi batzuk egiteko asmoa bazutela esan du Arrospidek, baina, azken neurriak medio, «gustukoa ez den erabaki bat» hartu behar izan dute: «Penaz baina bertan behera utzi behar izan dugu guztia».

Balkoiak apaintzeko deia ere luzatu dute Lizartzan, eta hor ere sariren bat banatuko dutela aurrreratu du Arrospidek. «Gustura egon gaitezke iazko inauteriak ospatzeko aukera izan genuelako, eta iazkoa gogoratuz pasa beharko ditugu aurtengoak», esan du. Urtero moduan, inauterien inguruan argitaratzen duten liburux-

ka ere «martxan» dutela zehaztu du eta «laster» banatuko dutela.

BERASTEGIN ERE BEREZIAK

Berastegiren kasuan, bi egun hartu ohi dituzte inauteriak ospatzeko, ostirala eta larunbata. Garazi Otxandorena kultur eta gazteria teknikariak azaldu duenez, ostiralean haurrak izan ohi dira protagonista: «Eskolatik kalejiran atera ohi dira mozorrotuta herrian zehar, eta arratsaldean dantza emanaldia eskaini ohi dute plazan». Aurten ere haurrek protagonismoa har dezaten, Tor magoaren magia ikuskizuna antolatu dute otsailaren 5erako. Ikuskizuna 16:30ean izango da, frontoian.

Larunbateko festa, berriz, bertan behera geratu da, baina Otxandorenak sorpresa bat aurrreratu du: «Aurten ez da aurrez aurreko txupinazorik izango, baina iaz mozorro lehiaketa irabazi zu-



Txistularien laguntzaz puska biltzen eta dantzan ibili ohi dira Lizartzako herritarrak inauterietan. JOSU ARTUTXA



Berastegiko iazko mozorro lehiaketako irabazleak. ASIERIMAZ

tenei aukera emango zaie txupinazoa online botatzeko». Momentuz prestatzen ari dira nola egin, baina esan du asteburu horretan berastegiar guztien mugikorretara bideoen bat iritsi daitekeela.

Gainerakoan, mozorro lehiaketa prestatu dute, etxetik egiteko moduan. Parte hartzaileek argazki edo bideoak bidali beharko dituzte *whatsapp* baten bidez,

otsailaren 5etik 7ra, biak barne, 688 681 952 zenbakira. Jasotako materialarekin bideo bat osatuko du udalak eta bideo horretan bertan emango dute aurtengo mozorro irabazlearen berri. Otxandorenak azaldu duenez, irabazleak ohiturari eutsiz, sari gisa arbia jasoko du eta 2022ko inauterietan txupinazoa botatzeko aukera izango du.

Hilberriak eta urteurrenak



Luisa Mujika Zurutuza

(Julian Imazen alarguna)

Atzo hil zen 96 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Lander eta Maixa, Koldo eta Iosune, Iñaki eta Jone; bilobak: Uxue, Leire, Maria, Eneko; anaia-arrebak: Joxepa (†) eta Mariano (†), Justina (†) eta Esteban (†), Juan, Kristina (†) eta Justo (†), Dominika (†) eta Joxe (†), Felisa (†) eta Nikolas (†), Serafina eta Miguel (†), Kandida eta Antonio, Anttoni eta Antonio; ezkon anaia-arrebak: Juanita (†) eta Manuel (†), Joxe eta Kontxi; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Zaintzailea: Karla

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta BIHAR OSTEGUNA arratsaldeko BOSTAK ETA ERDIETAN, SAN MARTIN Parroki Elizan gorpua aurrean dela, egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

ATAUN SAN MARTINen, 2021eko urtarrilaren 28an

HELBIDEA: Haundietxe txikia, 16 OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da GAUR ASTEAZKENA 16:00 - 20:00 eta BIHAR OSTEGUNA 10:00 - 13:30ak arte.



Maite Berasategi Zabalo

“Kalea gurea da. Auzoa gurea da. Eutsi diezaiozun horri!
Gora Geltokietako Jaiak!”



Geltokietako Jai Batzordea

URRETXU-ZUMARRAGAn, 2021eko urtarrilaren 28an

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

Puntuak lortzeko aurkarien kontrako partidak, hastear

Tolosa CF-ko Hirugarren Mailako taldeak azken hiru partidak galdu ditu, baina hain indartsuak ez diren taldeen aurka jokatzeari falta zaie

Imanol Garcia Landa Tolosa

Ligaren lehen fasearen bigarren itzulian sartuta dago dagoeneko futboleko Tolosa CF-ren Hirugarren Mailako taldea. Azken hiru partidak galdu egin ditu, baina iragan asteburuan Real Sociedad C taldearen aurka galdutako norgehiagokak eragin die taldekideei min gehien. Azken hiru aurkariak ligaren lehen postuetan daude, eta hemendik aurrera, ahal diren puntu guztiak lortzen saiatuko da Tolosa, hain aurkari indartsuak ez diren taldeen aurka.

Larunbatean jokatu zuen Berazubín Realaren aurkako partida, eta haserre zegoen Mikel Arruabarrena entrenatzailea, epaileak partidaren bukaeran hartu zituen erabakiengatik. «Ahazteko partida bat izan zen

nola bukatu zen ikusita. Taldeak eman zuen irudia eta egin zuen partida oso onak izan ziren, baina azken unean epaileak adierazi zituen jokaldi batzuk partida galarazi zituzten. Ez da aitzakiarik bilatu behar, baina hogeit hamar urte daramatzat futboleko eta inoiz ez nuen horrelakorik ikusi», esan du Arruabarrena.

89. minutuan partida irabazita zutela dio Tolosako entrenatzaileak, eta 95. minutuan galdu zuten, 2-3koarekin. «2-1 irabazten ari ginela, 89. minutuan gure jokalaria bat aurkako atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, eta inork ikusi ez zuen falta bat adierazi zuen epaileak, beste jokalaria bati egotzi ziona», zehaztu du Arruabarrena. Hurrengo jokaldian penaltia adierazi zieten Tolosakoei. «Irudietan ikusten da oso garbi baloia jotzen duela.



Tolosa eta Real Sociedad C arteko partidaren une bat. AGERREMEDIA.COM

Horrez gain, penaltiko jokaldia ez den gure jokalaria bati bigarren txartel horia ateratzen dio», gaineratu du Arruabarrena. «Orain ezin da ezer egin eta aurrera begiratu behar da». Etxeko partidak Tolosa CF-ren Youtubeko kanaletik ematen ari dira, eta hor ikusi ahal izan zituen irudiak entrenatzaileak.

Asteburu honetan atsedendia dute, eta hori aprobetxatu nahi dute buru aldetik ere atsedean hartu eta hurrengo partidari gogoz ekiteko. Tolosaren multzoan hamaika talde dira, eta urdinak zazpigarren postuan daude, 16 punturekin. «Taldea oso denboraldi ona egiten ari da. Egia da azken hiru partidak gal-

du egin ditugula, baina partida guztiak lehiatzen ari gara. Partida askotan aurkariak baino hobe egon gara, baina pixka bat asmatzea falta zaigu», esan du Arruabarrena. «Jokalariei jarraitzen eta lanarekin oso kontentu gaude».

Egokitu zaien multzoan oso talde indartsuak daudela gaineratu du entrenatzaileak: «Urgatzearekin batera, jokalariei ordaintzen ez zaien bakarrik gara». Bigarren itzulian hiru aurrenekoekin jokatu eta gero, orain puntuak eskuratzeko aukera gehiago izango dituzte, eta horri eutsi nahi diote. Izan ere, ligaren lehen fase honetan, azken bost postuetan geratzen diren taldeak maila mantentzeko fasean lehiatuko dira, eta talde bakoitzak beste multzoko azken bostekin bina partida jokatuko ditu. Oraingoz hartu diren erabakien arabera, hamar talde horietatik azken sei postuetan geratzen direnak mailaz jaitsiko dira.

Lehen fasean lortutako puntuek zein bigarrenengoan lortutako balioko dute azken sailkapena osatzeko. «Lehen fasean azken bost taldeen artean ez bagara geratzen, guretzat ikaragarria izango litzateke. Oso zaila da hori lortzea, baina horretan saiatuko gara», adierazi du Arruabarrena.

Alpino Uzturrek 13 domina, Euskadiko Txapelketan

Erredakzioa

Joan den asteburuan, urtarrilaren 23 eta 24an, Belaguan (Nafarroa), Iraupen Eskiko Euskadiko Txapelketan izan dira eta Alpino Uzturre elkarteak eskiatzaileak modu bikainean lehiatu dira, hamahiru domina lortuz. Bost urrezkoak izan dira, bina Alaia Juaristirentzat eta Ainara Lakuntzarentzat eta bat Mikel Plazasentzat. Zilarrezkoak sei izan dira, bina Irene Amantegirentzat eta Hodei Juaristirentzat, eta bana Naroa Amantegirentzat eta Olaia Plazasentzat. Beste bi domina brontzezkoak izan dira, eta Olaia Plazasek eta Naroa Amantegik bana lortu dute.

Eguraldi hotza eta haizetsuak ez zituen partaideak kikildu eta estatu osoko 140 eskiatzaile inguru elkarte ziren Belaguan, proba Espainiako Koparako ere puntuagarria zelako. Orain bi



Olaia Plazas, igandean, Belaguan jokaturako proban. ATARIA

aste Linzan eta asteburu honetan Belaguan egindako lau lasterketa batuz, Espainiako Kopako 18 urtez azpiko sailkapenean lehenengo postuan dago Alaia Juaristi.

Alpino Uzturre elkartetik azaldu dutenez, «emaitza hauek lortzeko nahitaezkoa da eskiatzaile-

leen esfortzua eta teknika. Eta, nola ez, asko laguntzen du entrenatzaile eta eski prestatzaileek uneko elurrari hobekien egokitzten den parafina eta argizariak eskia prestatzerakoan asmatzea». Lortutako emaitzengatik, kirolariak zein teknikoak zorian dituzte elkartetik.

Negu Trail proba, bertan behera

Erredakzioa Berastegi

«Pena handiz» hartu dute Negu Trail mendi lasterketako antolatzaileek aurtengo proba bertan behera uzteko erabakia. «Ilusio berezia jarrita genuen, oso lasterketa gutxi ziren urte honetan, jendea korrika ikusteko Berastegin. Horretarako oso ondo genuen prestatuta dena, segurtasun neurri guztiekin», esan du Aritz Mujikak. Baina Eusko Jaurlaritzak hartu dituen neurri berriengatik, batez ere itxiera perimetralak, ez du posible egiten lasterkarien parte hartzea.

Antolakuntza taldeak aurtengo bertan behera utzi du, eta ez du, beraz, data aldatarik egingo. Otsailaren 7an egitekoa zen Negu Trail lasterketa, eta neurriek otsailaren 8ra arte iraungo dute. Azaroan zabaldu zen izen emateko aukera, eta egun eta erdi baino lehen bete ziren pla-

zak. Orain antolakuntzakoak izena eman dutenekin posta elektronikoz jarriko dira harremanetan eta bi aukera emango dizkiete: aurreikusita zegoen poltsa jasotzea (kamiseta, basoa eta abarrekin) edota parte hartzeko aukera gordetzea datorren urteko lasterketarako.





OSTEGUNA, 2021EKO URTARRILAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 28

AGENDA

Deialdiak

Berastegi. Gipuzkoako Odol Elkar-teak antolatua, odol ematea, Muña-gorri eskolan, 17:00etan.

Tolosa. *Nolako saskia, halako bizia* hitzaldia Azokako lagunentzat, *stre-aming* bidez. Tolosako Azokako elikagaien azterketa Eli Gallego eta Iñaki Etxeberria nutrizionisten eskutik.

Amezket. Estankoko eraikin zahar-bota eta etxe berriak egiteko proiektua azalduko dute, kultur etxeko areto nagusian, 18:00etan.

Tolosa. Arnasketa tailerra, maskarak sor ditzakeen kalteak ekiditeko, Estitxu Uribeetxeberria fisioterapeutarekin, kultur etxean, 18:30ean.

Tolosa. Zine foruma: *La voz humana* eta *Amore* filmak, 19:00etan, Leidorren.

Amasa-Villabona. Imanol Jazz ikus-kizuna, Gurea antzokian, 19:00etan. Karlos Gimenez eta Iñaki Salvador pianoan, Ainara Ortega eta Pettiren ahotsekin.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Elkarriketap (Arantza Santesteban)

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

18:00. Lehen lerroan (Sin mala intencion)

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Prentsari begira, eguraldia, kolaboratzaileen tartearak...

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratien artean eginiko magazina.

20:00. Musikasi. Musika klasikoa, Karmen Sanzekin.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro epela eta argia. Egun osoan zehar goi-mai-lako hodei batzuk ikusiko ditugu, zeruari kolore zurixka emanez, baina ez dute bestelako ondorioz izango eta giro argia eta polita izango dugu. Haizeak hego-mendebaldetik tarteka bizi joko du eta tenperatura maximoek gora egingo dute, 17-18 graduan joko dutelarik goia.



Bihar. Giro nahasia. Goizean hodeitza handia izango da eta euri zaparradaren bat edo beste izango dugu. Eguerditik, ordea, atertu eta ostarteak zabalduko dira. Haizeak goizean mendebaldetik joko du, egunaren bigarren zatian hego-mendebaldetik finkatu eta indarra hartuko duelarik. Tenperatura 16-17 gradura jaitsiko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



Harituzeko kideak eta herriko gazteak, Berastegin, Santa Ageda bezperako eskea egiten. IMANOL GARCIA LANDA

Santa eske birtuala proposatu dute

Harituz Bertsozale Elkarguneak santa eskeko koplak abestuz bideo bat grabatzeko deia egin die herritarrei; eskualdeko herri guztiekin bideoa osatzea da helburua

Erredakzioa Tolosaldea

Makilak astinduz, kantuan etxez etxe ez ditugu herritarrik ikusi-ko aurren, Santa Ageda bezperan, baina, Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneak, beste era batera bada ere, santa eskea egitera animatu ditu herritarrik. Koplak abestuz bideoa grabatzeko deia egin die herritarrei, ondoren, jasotako guztiekin bideo bat osatzeko.

Unai Mendizabal *Mendi* Harituz-eko kideak azaldu duenez, Tolosaldeko herri bakoitzetik gutxienez bideo bat jasotzea da

euren nahia: «Santa eskeko doinu- nuan koplato bat kantatuz grabatu, eta guri bidali beharko dute, eta guk grabazio horiekin bideoa osatuko dugu, beraz, ea lortzen dugu eskualdeko herri guztiak ordezkatuak izatea».

Otsailaren 1a jarri dute grabazioak bidaltzeko epea, Santa Ageda bezperarako bideoa prest eduki ahal izateko. Parte hartzaileek harituz.bzt@gmail.com helbidera bidali besterik ez dute egin beharko.

Mendi-k esan duenez, une honetan santa eskean etxez etxe aritzerik ez badago ere, ez zuten

erabat bertan behera utzi nahi: «Debeku horri beste modu batera begiratu diogu, eta santa eske birtuala egitea ideia ona iruditu zaigu, beraz, herritarrik parte hartzera animatzen ditugu».

Bestalde, Harituzeko kideak adierazi du, aurren ezingo dutela Santa Ageda ohi bezala ospatu, baina, datorren urtean kalean izango dira. «Santa eskerako ohitura apaltzen joan da, eta herri batzuetan galdu ere egin da; guk, azken urteetan egin dugun moduan koplak abesten jarraituko dugu, eta ea berriro ere ohitura hau errekuperatzen dugun».



zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

Imanol Jazz kontzerturako bi sarrera.



Otsailak 3, 20:15, Leidor antzokia (Tolosa).

Konpromisoa antzezlanerako bi sarrera zozkatuko ditugu.



Urtarrilak 31, 19:00, Gurea antzokia (Villabona).

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

Familiarentzako sarrera (bi nagusi eta ume bat)



albaola.com • Pasai San Pedro • 943 39 24 26

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 EKAINBERRI museoa

Bi laguntzako sarrera bikoitza



ekainberri.com • ZESTOA • 943 868811
info@ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** / www.ataria.eus webgunean • urtarrilaren 15etik, 28ko 11:00ak arte.